

BILBO
2025

BILBOKO
KONPARTSAK

ABU16
-24 AGO



ASTE
NAGUSIA

AURKI- BIDEA IN- DICE



Diseinu eta maketazioa:
KAIKOO STUDIO

AGURRA SALUDO	4
TXOSNAK. GUREAK, DENONAK.....	6
TXUPINERA & PREGOILARIA.....	7
BILBOKO KONPARTSAK.....	8
MAPA TXOSNAK.....	20
ASTE- NAGUSIPEDIA	22
GASTRO- NOMIKOA	26
HIRI KROSA.....	32
HAURREN PROGRAMAZIOA PROGRAMA INFANTIL.....	36
PROGRAMA EGUNEZ EGUN PROGRAMA DÍA A DÍA	44
BILBOKO KONPARTSEN KONTZERTUAK CONCIERTOS DE BILBOKO KONPARTSAK	70
JAI BATZORDE MISTOAREN KONTZERTUAK CONCIERTOS DE LA COMISIÓN MIXTA DE FIESTAS.....	72

BILBOKO KONPARTSEN AGURRA

Ongi etorri, bilbotarrok eta bisitariok, beste urte batez, orotariko plazerak, topaketak, bizipenak eta aldarriak eskainiko dizkizuen festara, Bilboko Aste Nagusira! Ongi etorri konpartsen jai eremura, auzolanaren fantasiara, jai herrikoien paradisura! Aurten, beti bezala baina modu berezi batean, aldarrikatzaile gatoz, gure jai eredia defendatu beharrean baikaude: Bilboko jaiak munduko onenak badira, konpartsei eta txosnei esker da, baietz?

Hamar eguneko aste zoragarri honetan konpartsen gunea zapalduko dugun gehienok ez dugu beste jai eredurik ezagutu Bilbon. Herritik pentsatua, sortua, garatua, txukundua... herriarentzat. Baina festa molde sustraitua eta egonkortua izan arren, ba al dakigu nola funtzionatzen duen?

Bilbotarrok eta bisitariok, ba al dakizue jai gunean ikusten dituzuen txosna eder hauek konpartsakideek muntatzen dituztela, lan boluntarioan? Ba al dakizue txosnetan kalimotxoa zerbitzatuko dizuetenek ez dutela ogerleko bat ere jasoko? Eta ba al dakizue diru hori euskara eta euskal kultura sustatzera, feminismoa indartzera, mugimendu ekologista laguntzera, auzoetako jaiak muntatzera edo beste hamaika kolektibo elikatzea bideratuko dela? Ba al dakizue iazko Aste Nagusia amaitu zenetik bilera mordo bat egin dituztela konpartsek aurtengoa antolatzeko? Ba al dakizue txosnak jartzeaz gain, doako ia 500 jarduera antolatzen dituztela konpartsek egun hauetarako? Ba al dakizu lan hori guztia musutruk egiten dutela dozenaka pertsonak, denok gaiez goza dezagun?

Jakin ezazue, bilbotarrok eta bisitariok, hori dena gustura egiten dugula konpartsakideok, baina trabak ere ez direla gutxi; izan jazarpen ideologikoa, izan jai eredu kapitalistarako joera, izan oztopo administratiboak... Horregatik, gure jai eredia aldarrikatu behar dugu, eta babestu. Izan ere, imaginatu al ditzakegu gure Aste Nagusia konpartsarik eta txosnarik gabe? Gure ondare immateriala dira: gozatzeko, parte hartzeko, elkarrekin egoteko, herria eraikitzeko, komunitatea indartzeko, euskaraz aritzeko, eta batez ere, aske izateko modua ematen digute. Babes eta aldarrika ditzagun.

**KONPARTSAK ETA TXOSNAK
GUREAK DIRELAKO. DENONAK.**



SALUDO DE BILBOKO KONPARTSAK

Ongi etorri, bilbaínas y visitantes, otro año más, a Bilboko Aste Nagusia, estas fiestas que os ofrecen la más diversa paleta de placeres, encuentros, vivencias y reivindicaciones. ¡Bienvenidas al recinto festivo de las konpartsak, a la fantasía del trabajo colectivo y al paraíso de las fiestas populares! Este año venimos especialmente reivindicativas, ya que nos vemos obligadas a defender nuestro modelo festivo: si las fiestas de Bilbao son las mejores del mundo es gracias a las konpartsak y las txosnas, ¿verdad?

La mayoría de quienes vamos a habitar el recinto de las txosnas en esta maravillosa semana de diez días no conocemos otro modelo festivo en Bilbao. Pensado, creado, desarrollado y pulido por y para el pueblo. Pero a pesar de que es un modelo festivo enraizado y estable, ¿sabemos realmente cómo funciona?

Bilbainas y visitantes, ¿sabíais que estas preciosas txosnas que veis en el recinto las construyen comparseras con trabajo voluntario? ¿Sabíais que la persona que os sirve el kalimotxo en las txosnas no va a ver ni un duro por su desempeño? ¿Y sabíais que ese dinero va destinado a promover el euskara y la cultura vasca, a reforzar el feminismo, a impulsar el movimiento ecologista, a organizar las fiestas de los barrios o a sustentar diversos colectivos sociales? ¿Sabíais que desde que acabó la Aste Nagusia del año pasado las konpartsak han hecho un sin fin de reuniones para organizar la de este año? ¿Sabíais que además de montar las txosnas las konpartsak han organizado más de 500 actividades gratuitas para estos días? ¿Sabíais que docenas de personas realizan esa tarea gratis para que todas disfrutemos de las fiestas?

Sabed, bilbaínas y visitantes, que las comparseras realizamos toda esa labor con mucho gusto, pero que los obstáculos a los que nos enfrentamos también son muchos, en forma de persecución ideológica, de tendencia hacia el modelo festivo capitalista, de trabas administrativas... Por eso tenemos que reivindicar nuestro modelo, y defenderlo. Porque ¿acaso podemos imaginarnos Aste Nagusia sin konpartsak ni txosnas? Son nuestro patrimonio inmaterial, nos permiten gozar, participar, estar juntas, construir pueblo, reforzar la comunidad, ser solidarias, proteger la cultura, vivir en euskera, y sobre todo, ser libres. Defendámoslas y reivindicémoslas.

**PORQUE LAS KONPARTSAS Y LAS TXOSNAS SON
NUESTRAS. TXOSNAK, GUREAK. DENONAK.**



TXOSNAK. GUREAK, DENONAK.

Auzolana eta kultura

Imajinatzen al duzu txosnarik gabeko jairik?

Txosnak mundua eraldatzeko ametsa dugunon etxeak dira. Elkarlanean sinisten dugunon sukaldeak, kultura elkarbanatzen dugunon eszena-tokiak, iraultza eta dantza gogoko dugunon barrak...

Konpartsakideok gure denbora mutiluk eskaintzen dugu. Urtean zehar, hainbeste lan ordu, jai eta opor egun... Gure poltsikoetan ez da sosik sartzen, soilik auzolana eta irribarreak.

Indibidualismoa erlijiotzat dutenek, ezingo dituzte hitzok ulertu, ez baitira norberaren interesetatik at dagoena ikusteko gai.

Zenbat kontzertu, tailer, antzerki, dantza... ikusi dituzu Aste Nagusian doan?

Txosnak ameslarion etxeak dira. Elkarrekin amesten jarrituko dugu?

¿Imaginas unas fiestas sin txosnas?

Las txosnas son las casas de quienes soñamos con transformar el mundo. Son las cocinas de quienes creamos en la colaboración; los escenarios para compartir cultura; las barras de quienes soñamos con bailar la revolución...

Las comparsas dedicamos nuestro tiempo voluntariamente. Horas de trabajo, festivos, vacaciones... A nuestros bolsillos no llega ni un céntimo, pero sí la satisfacción del trabajo en común.

Quienes tienen el individualismo por religión, no comprenderán las palabras de este texto; no son capaces de ver más allá de intereses propios.

¿Cuántos conciertos, talleres, teatro, danza... has visto en Aste Nagusia gratis?

Las txosnas son las casas de quienes soñamos alto. ¿Quieres que sigamos soñando juntas?

BERTSOA

Gune berean elkartutako ume, heldu zein nerabe.

Komunitate antolatuta bat gozamenerako sare.

Festa, zarata, jana, edana, antolakuntza ta auzolana kultura baten ondare; baita jendarte justuago bat lortzeko konplizidade.

Belaunalditan transmititu den eredu baten zutabe.

Jaiak non dauden, han daude txosnak; dira gureak dira denonak; eta horregatik gaude topa egiten euren alde.

Doinua: Izarren hautsa



TXU- PI- NERA

OLATZ
AGIRRE

Txori Barrote
konpartsa

PRE- GOI- LARIA

FRANCIS
DÍEZ

Abeslaria
Cantante



BILBOKO KON- PARTSAK



Bilboko Konpartsak Aste Nagusia antolatu eta bizitzen dugun herri jatorriko taldeak gara. Urte osoan zehar egiten dugu lan, eta gure helburua zera da, Aste Nagusia, San Tomas, Aratusteak eta auzoetako jaiak, herritarrek herritarrentzat eginak izatea. Elkarbizitza posible dela uste dugu, ezberdintasunetik eta iritzi aniztasunetik; beraz, instituzioek bakarrik antolatutako jaien ereduarekin konforme ez gaudenok konpartsetan biltzen gara.

KONPARTSOK
EZBERDINAK GARA,
JAI GARA,
BILBOTARRAK GARA


+

MAPA

Bilboko Konpartsak somos grupos de raíz popular dedicados a hacer y vivir la fiesta en Bilbao. Trabajamos durante todo el año y apostamos por una Aste Nagusia, carnavales, Santo Tomás y fiestas de todos los barrios hechas por y para la gente de Bilbao. Creemos que la convivencia es posible, desde la diferencia y la diversidad de opinión, las konpartsas agrupan a quienes no se sienten conformes con un modelo de fiesta organizado sólo por las instituciones.

LAS KONPARTSAS
SOMOS DIFERENTES,
SOMOS FIESTA,
SOMOS DE BILBAO

BILBOKO KONPARTSAK



1 AIXEBERRI

Sortze data / Año de creación: 1996

Kokalekua / Ubicación: Areatza / El Arenal

Txupinerak: Sonia Charcán (1997)

Saioa Domínguez Hormaetxe (2018)



2 ALGARA

Sortze data / Año de creación: 1994

Kokalekua / Ubicación: Naxa

Txupinera: Isabel Isazelaia (2008)



3 ALTAPORRUE


Sortze data / Año de creación: 2004

Kokalekua / Ubicación: Kulturgune

Txupinera: Larraitz Cisneros (2007)



BILBOKO KONPARTSAK



4 ASKAPEÑA

Sortze data / Año de creación: 1991

Kokalekua / Ubicación: Karpagune

Txupinerak: Begoña Benedicto (2004)

Ane Ortiz Ballesteros (2017)



5 BIZIZALEAK

Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: Triangune

Txupinera: Eva Dolado (1989)



6 EGUZKIZALEAK


Sortze data / Año de creación: 1989

Kokalekua / Ubicación: Euskalgune

Txupinera: Sonia Polo (2009)



BILBOKO KONPARTSAK



7 HAU PITTU HAU

Sortze data / Año de creación: 1987

Kokalekua / Ubicación: Euskalgune

Txupinera: Miren Barrutia (1991)



8 HONTZAK

Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: Teilape gunea

Txupinera: Sandra Guzmán (1995)



9 HOR DAGO ABANTE!


Sortze data / Año de creación: 1993

Kokalekua / Ubicación: Teilape gunea

Txupinera: Arantza de Jesús (1996)



BILBOKO KONPARTSAK



10 KAIXO

Sortze data / Año de creación: 1981

Kokalekua / Ubicación: Arriaga atzekaldea

Txupinera: Montserrat Valerio (1981)



11 KASKAGORRI

Sortze data / Año de creación: 1989

Kokalekua / Ubicación: Arriaga atzekaldea

Txupinera: Itxaso Goti (1990)



12 KRANBA!


Sortze data / Año de creación: 2008

Kokalekua / Ubicación: Piratagune

Txupinera: Gisèle Felli Gorritxo (2016)



BILBOKO KONPARTSAK



13 MEKAUEN!

Sortze data / Año de creación: 1991

Kokalekua / Ubicación: Triangune

Txupinera: Patricia Lezama (2011)



14 MOSKOTARRAK

Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: Areatza kaia

Muelle del Arenal

Txupinera: Anabel Fernández Pareda (1982)



15 PA...YA!

Sortze data / Año de creación: 1989


Kokalekua / Ubicación: Arriaga atzekaldea

Txupinerak: Arantza Garbayo (1999)

Itsasne Nuñez (2019)



BILBOKO KONPARTSAK



16 PINPILINPAUXA

Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: Tingladoak

Txupinerak: Maite Pérez (2003)

Izaskun Pinedo (2023)



17 PIZTIAK

Sortze data / Año de creación: 2012

Kokalekua / Ubicación: San Nikolas

Txupinera: Loreto Errasti (2014)



18 SATORRAK


Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: Kialde

Txupinera: Lurdes Luke (2002)



BILBOKO KONPARTSAK



19 SINKUARTEL

Sortze data / Año de creación: 1996

Kokalekua / Ubicación: Triangune

Txupinera: Marta Gerrikabeitia (2006)



20 TINTIGORRI

Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: San Nikolas

Txupinerak: Aitziber Adell Ateca (2005),

Iratxe Palacios Gara (2022)

Ohorezko Txupinera / Txupinera de honor:

Ameli Jauregizar (2005)




21 TRIKIMAILU

Sortze data / Año de creación: 2014

Kokalekua / Ubicación: Kaialde



BILBOKO KONPARTSAK



22 TXINBOTARRAK

Sortze data / Año de creación: 2005

Kokalekua / Ubicación: Kulturgune

Txupinerak: Aratz Irazabal (2010),

Nagore Ugarte (2024)



23 TXINPARTA FEMINISTA

Sortze data / Año de creación: 2022

Kokalekua / Ubicación: Arriaga Plaza



24 TXOMIN BARULLO


Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: Teilape gunea

Txupinera: Oihana Pascual (2015)



BILBOKO KONPARTSAK



25 TXORI BARROTE

Sortze data / Año de creación: 1981

Kokalekua / Ubicación: Euskaalgune

Txupinerak: Jone Artola (2013)

Olatz Agirre (2025)



26 URIBARRI

Sortze data / Año de creación: 1978

Kokalekua / Ubicación: San Nikolas

Txupinera: María Jesus Agirregoitia (1979)



27 ZARATAS

Sortze data / Año de creación: 2007

Kokalekua / Ubicación: Areatza / Arenal

Txupinera: Nerea Orizaola (2012)



ASTE NAGUSIKO PASAPOTEA

Zigiluz betetako pasapote batek
erakusten du aparteko Aste Nagusi
bat bizi izan duzula.

Ez dakizu zein txosnatara joan?
Utzi zigiluek gida zaitzaten.

Bidaia, esploratu, ondo pasatu eta
ezagutu konpartsak zigiluen bidez.

Zigiluak parrandazale baten dominak
dira. Jar itzazu harrotasunez!

Aste Nagusiaren oroigarri paregabea:
zure PASAPOTEa zigiluz beteta!

Bizi jaien esperientzia osoa
PASAPOTEAREKIN!



Un pasapote lleno de sellos muestra
que has vivido una Aste Nagusia única.

¿No sabes a qué txosna ir?
Deja que los sellos te guíen.

Viaja, explora, disfruta y descubre
las konpartsas con sellos.

Los sellos son las medallas del
parrandeo. ¡Póntelos con orgullo!

Un recuerdo único de la Aste Nagusia:
¡Tu PASAPOTE lleno de sellos!

¡Vive toda la experiencia de las fiestas
con tu PASAPOTE!

KONPARTSEN MAPA MAPA DE KONPARTSAS



- 1 AIXEBERRI
- 2 ALGARA
- 3 ALTXAPORRUE ⚡
- 4 ASKAPEÑA
- 5 BIZIZALEAK
- 6 EGUZKIZALEAK
- 7 HAU PITTU HAU!
- 8 HONTZAK
- 9 HOR DAGO ABANTE!
- 10 KAIXO ⚡
- 11 KASKAGORRI ⚡
- 12 KRANBA! ⚡
- 13 MEKAUEN!
- 14 MOSKOTARRAK
- 15 PA...YA! ⚡
- 16 PINPILINPAUXA
- 17 PIZTIAK ⚡
- 18 SATORRAK
- 19 SINKUARTEL ⚡
- 20 TINTIGORRI
- 21 TRIKIMAILU
- 22 TXINBOTARRAK ⚡
- 23 TXINPARTA FEMI. ⚡
- 24 TXOMIN BARULLO
- 25 TXORI BARROTE
- 26 URIBARRI
- 27 ZARATAS ⚡

ASTE NAGUSI- PEÑIA



ASTE NAGUSIA

Aste Nagusia Bilbon ospatzen dugun jai astea da. Gaztea izan arren, parranda guztien ama bihurtu eta nazioarteko miresmena irabazi du. Bilboko gizarte mugimenduek sortu zuten 1978an, eta hainbesteko indarrez errotu zen, Udalak, antolatzaileen herri mobilizaziorako gaitasunaren aurrean harrituta, Aste Nagusia Bilboko jai nagusi ofizial gisa onartzea besterik ez zuela izan.

Aste Nagusia es una semana de fiesta que celebramos en Bilbao que, a pesar de su juventud, se ha ganado la admiración mundial por haberse convertido la madre de todas las parrandas. Creada en 1978 por los movimientos sociales de Bilbao, arraigó con tal fuerza, que el Ayuntamiento, atónito ante la capacidad de movilización popular de sus administrados, no tuvo más remedio que aceptarla como la fiesta mayor oficial de Bilbao.

KONPARTSAK

Konpartsak Bilboko hainbat gizarte erakunderen jai alderdia osatzen dituzten taldeak dira, herritik sortutakoak. Elkarte horiek Bilboko elkarte sarearen aberastasunaren, aniztasunaren eta heterogeneotasunaren isla dira. Jaiaren eragile nagusia dira, eta Udalarekin elkarlanean antolatzen dituzte, borondate hutsez.

Las konpartsas son agrupaciones populares que representan a diferentes movimientos sociales de Bilbao, reflejando la diversidad del tejido asociativo de la villa. Junto al Ayuntamiento, se ocupan de organizar las fiestas, siendo el principal motor de las mismas.





MARIJAIA

Marijaia jaiaren pertsonifikazioa da. Mari Puri Herrero artistak sortu zuen 1978an Txomin Barulloko konpartsa-kide batzuen proposamenez, eta Aste Nagusiko irudi ikoniko nagusia da. Arriaga antzokiko bakoian agerraldia egiten duenean, festari hasiera ematen dio, eta itsasadarrean su hartzen duenean, festa amaitutzat ematen du. Aste Nagusi osoa kaleetatik dantzan igarotzen du, besoak altxatuta, harrera eta ospakizuna iragartzeko. Ez dago argi zein den bere egoera zibila, baina zenbait konpartsakide bere gonon azpitik gorrituta eta arnasestuka ateratzen ikusi dituztela zabaldu da.

Marijaia es la personificación de la fiesta. Creada en 1978 por la artista Mari Puri Herrero a propuesta de unas comparsas de Txomin Barullo, es la figura icónica principal de Aste Nagusia. Es la que abre la fiesta con su aparición en el balcón del teatro Arriaga y la cierra al arder en la ría. Se pasa toda la fiesta bailando por las calles, con sus brazos levantados en señal de celebración y acogida. Se desconoce su estado civil, pero existe el rumor de que se ha visto a algunas comparsas y comparseros salir sonrojados y jadeantes de debajo de sus faldas.

TXUPINA

Txupina Aste Nagusiari hasiera ematen dion ekitaldia da: Arriaga antzokiko bakoitik pregoia irakurri, Txupinerak txupina bota, eta Marijaia jendetzaren aurrean dantzan hasten da. Ganorazko bilbotarrek beti eta nonahi zuzendu behar izaten dute txupina izendatzeko hori ez den beste izen bat erabiltzen duen edonor, eta ipurdia zapaten puntarekin berotuko diote, txupin hitzaren erabilera okerrari eusten badio. Txupinari "txupinazo" deitzen dionak, Athletic "el Bilbao" edo bakailaoari "bacalado" deitzearen antzeko zentzugabekeria egiten du. Era berean, txupineko ekitaldian egundoko olgetan Bilboko Urari kortxoa kentzea ontzat hartzen da, baina irina, arrautzak eta nazkagarrikeria sortzen duten gainerako elementuak erabiltzea eta alferri jaurtitzea iraintzat hartuko du Bilbo benetan bihotzean daraman amaren edozein seme-alabak.

El Txupín es el acto que da inicio a Aste Nagusia, consiste en la lectura del pregón desde el balcón del teatro Arriaga, el lanzamiento del Txupín por parte de la Txupinera y la salida de Marijaia ante la multitud. Las bilbainas y bilbainos (con diptongo) de fuste deben corregir siempre y en todo lugar a todo aquel indocumentado que se refiera al acto por otro nombre que no sea el de Txupín, y correrlo a paraguazos si insiste en su error. Quien llama "chupinazo" al Txupín, incurre en una ignominia similar a llamar "el Bilbao" al Athletic o "bacalado" al bacalao. Asimismo, en el acto del Txupín está bien visto descorchar botellas de Agua de Bilbao entre gran jolgorio, pero se considera una ofensa el uso y desperdicio de harina, huevos y demás elementos generadores de marranería.





TXUPINERA

Txupinera, urtero, konpartsakide ezberdin bat da, beti emakumezkoa, txupineraren udal ogibide zaharraren omenezkoa. Udaleko langilea zen, eta, besteak beste, bilbotarrei hainbat berritasun eta ospakizun iragartzeko, txupinen jaurtiketaz arduratzen zen. Ogibidea amatik-alabara pasatzen zen.

Bere lana jaiari hasiera ematen dion txupina jaurtitzea da, baita eguneror, diana gisa, goizeko hamarretan txupina botatzea ere. Pregoilariarekin batera, protokolo ekitaldi ugaritara joaten da. Konpartsakide batek izan dezakeen ohorerik handiena da: Bilboko txupinera izatea.

La Txupinera es una comparsa, siempre mujer, en homenaje al antiguo oficio que se traspasaba de madres a hijas de txupinera. Se trataba de la empleada del Ayuntamiento que se ocupaba, entre otras labores, del lanzamiento de txupines para anunciar diversas novedades y celebraciones a los y las bilbotarras.

Su labor consiste en lanzar el txupin que da inicio a la fiesta, así como uno cada día a las diez de la mañana, a modo de diana, entre otros muchos actos protocolarios en compañía del pregonero o pregonera. Es el más alto honor al que puede aspirar una comparsa: ser Txupinera de Bilbao.

PREGOILARIA PREGONERO/ PREGONERA

Bilbon pertsona garrantzitsua eta bereziki maitatua da, eta Pregoilari izendatzearekin batera, egindako lan ona aitortzen zaio. Txupin egunean, bere funtzioa pregoia irakurtzea da, eta, ondoren, Txupinera laguntzea mota guztietako jai, komunikazio eta protokolo ekitalditan, pausu bakoitzean, botxoko biztanle guztien maitasuna jasoz.

Bilbotar batek izan ditzakeen kargurik gorenenak Txupinerarena eta Pregoilariarena dira, maila baxuagoko beste batzuen gainetik, hala nola alkate, go-tzain edo Athleticeko presidentearena.

Es una persona relevante y especialmente querida en Bilbao a la que se reconoce su buen hacer con este nombramiento. Su función es la lectura del pregón en el txupin y asistir a todo tipo de actos festivos, de comunicación y protocolo, siempre de la mano de la Txupinera, recibiendo a su paso el cariño de los y las botxeras.

El de Pregonera y el de Txupinera son los más altos cargos que puede ostentar alguien natural de Bilbao, muy por encima de otros de rango menor, como el de alcalde, obispo o presidente del Athletic.





TXOSNAK / TXOSNAS

Txosnak konpartsek muntatzen dituzten aldi baterako instalazioak dira. Bertan, mota guztietako edabe bizigarriak eta jaki gozoak eskaintzen dira, baita era guztietako ikuskizunak eta jai ekintzak ere.

Dekorazioak adierazpen askatasunerako espazio bat dira, eta horietan, unean uneko errealitateari egindako kritika soziala umorez eta garraztasunez adierazten da. Bildutako diruarekin, Aste Nagusiko ekintzen programazioa ez ezik, urte osoan, mota guztietako gizarte, kultura eta jai jarduerak ere antolatzen dira.

Txosnak muntatzen, kudeatzen eta desmuntatzen diharduten pertsonak ez dira profesionalak eta borondatezko lana egiten dute, guztiok jaia goza dezagun. Kontuan har ezazu hori jaiez gozatzera txosnetara hurbiltzen zarenean.

Las txosnas son las instalaciones temporales que montan las konpartsas, en las que se ofrecen toda clase de estimulantes bebedizos y deliciosos manjares, además de toda suerte de espectáculos y actividades festivas.

Sus decoraciones son un espacio de libertad de expresión, desde el que se manifiesta con humor y mordacidad la crítica social a las realidades del momento. De su recaudación dependen no solo la programación de los actos propios de Aste Nagusia, sino también la organización de todo tipo de actividades sociales, culturales y festivas durante el resto del año.

Las personas que trabajan en su montaje, gestión y desmontaje están lejos de ser profesionales y lo hacen de manera altruista, para el disfrute general. Ten en cuenta y valora esto siempre que te acerques a una de ellas.

JARDUEREN
EGITARAUJA

GAS- TRO- NOMI- KOA

46.

PROGRAMA DE
ACTIVIDADES



AREATZA EL ARENAL



Guztiontzako jakina da Aste Nagusiaren Lehiaketa Gastronomikoa Bilboko Konpartson programazioaren plater indartsuenetarikoa dela zalantzarik gabe.

Bizkaiko hainbat sukaldari ospetsurekin batera Aste Nagusiko sukaldaritza txapelketa gure jai ereduaren berezitasunaren islarik argiena bihurtu dugu urteen poderioz, herritarren parte-hartze itzela lortu izan dugu eta egun batzuetan zoratzeko zorian egon gara. Horrek pozten gaitu bereziki, hori izan delako 1978. urtetik buruan izan dugun erronka: Aste Nagusia jai herrikoia eta parte hartzailea izatea. Eta urtero lortu egiten dugu guztion artean.

Es de sobra conocido que el Certamen Gastronómico es sin duda alguna uno de los platos fuertes de la programación de Bilboko Konpartsak en Aste Nagusia.

Junto a reputados cocineros y cocineras de Bizkaia, hemos convertido el Gastronómico en el mejor ejemplo de la peculiaridad del modelo festivo de Bilbao, la increíble participación popular. Y esto nos llena de alegría porque ese ha sido precisamente uno de nuestros retos desde el año 1978: que Aste Nagusia sea una fiesta popular y participativa. Y lo conseguimos año tras año entre todas y todos.



DOMEKA 17 DOMINGO



10:30 MUNDUKO PLATERAK: ARROZA
PLATOS DEL MUNDO: ARROZ
Izen ematea / Inscripción

Gure lurreko **MERKATUA**
MERCADO de baserritarras

Ardo dastaketa-Lehiaketa
"Marijaiaren sudurra"
Cata-Concurso
"Nariz de Marijaia"

12:00 Eusko Labeleko barazki eta
hanburgesa **PARRILLADA**
PARRILLADA de verduras y
hamburguesas de Eusko Label

13:15 MUNDUKO PLATERAK: ARROZA
PLATOS DEL MUNDO: ARROZ

15:00 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
Sari banaketa
Entrega de premios

ASTELEHENA 18 LUNES

10:30 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
PISTO (100% BEGETALA)
Izen ematea / Inscripción

11:00 **GASTROTXXIKI: ENTSALADA**
Izen ematea / Inscripción

11:30 **GASTROTXXIKI** (1 pasea)

12:15 **GASTROTXXIKI** (2 pasea)

13:15 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
PISTO (100 % BEGETALA)

15:00 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
Sari banaketa
Entrega de premios

MARTITZENA 19 MARTES



10:30 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
PATATA TORTILA
TORTILLA DE PATATA
Izen ematea / Inscripción

13:15 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
PATATA TORTILA
TORTILLA DE PATATA

15:00 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
Sari banaketa
Entrega de premios

EGUAZTENA 20 MIÉRCOLES

10:30 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
TXIPIROIKIAK TINTAN
TXIPIRONES EN SU TINTA
Izen ematea / Inscripción

11:00 **GASTROTXXIKI: FRUTA BROTXETAK**
Izen ematea / Inscripción

11:30 **GASTROTXXIKI** (1 pasea)

12:15 **GASTROTXXIKI** (2 pasea)

13:15 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
TXIPIROIKIAK TINTAN
TXIPIRONES EN SU TINTA

15:00 **LEHIAKETA / CONCURSO:**
Sari banaketa
Entrega de premios



EGUENA 21 JUEVES

- 10:30 LEHIAKETA / CONCURSO:
SUKALKIA
Izen ematea / Inscripción
- 11:00 BASQUE WINE:
Express dastaketa
Cata express
- 12:00 Txupinerei ongi etorria
Recepcion de Txupineras
- 13:15 LEHIAKETA / CONCURSO:
SUKALKIA
- 15:00 LEHIAKETA / CONCURSO:
Sari banaketa
Entrega de premios

BARIKUA 22 VIERNES

- 10:30 LEHIAKETA / CONCURSO:
BAKAILAO PIL-PIL ERAN
BAKALAO AL PIL-PIL
Izen ematea / Inscripción
- 11:00 Txakolin dastaketa
BIZKAIKO TXAKOLINArekin
Cata de txakoli
con BIZKAIKO TXAKOLINA
- GASTROTXXIKI: GILDAK
Izen ematea / Inscripción
- 11:30 GASTROTXXIKI (1 pasea)
- 12:15 GASTROTXXIKI (2 pasea)
- 13:15 LEHIAKETA / CONCURSO:
BAKAILAO PIL-PIL ERAN
- 15:00 LEHIAKETA / CONCURSO:
Sari banaketa
Entrega de premios

ZAPATUA 23 SÁBADO

- 10:30 LEHIAKETA / CONCURSO:
MARMITAKOA
Izen ematea / Inscripción
- 11:00 Sagardo dastaketa
EUSKAL SAGARDOArekin
Cata de sidra
con EUSKAL SAGARDOA
- 12:00 Eusko Labeleko produktuen
PARRILLADA (Hegaluzea)
Parrillada de productos de
Eusko Label (Bonito del norte)
- 13:15 LEHIAKETA / CONCURSO:
MARMITAKOA
- 15:00 LEHIAKETA / CONCURSO:
Sari banaketa
Entrega de premios

DOMEKA 24 DOMINGO

- 10:30 LEHIAKETA / CONCURSO:
BUZTAN GISATUA (RABO)
Izen ematea / Inscripción
- 11:00 Gure lurreko MERKATUA
MERCADO de baserritarras
- 13:15 LEHIAKETA / CONCURSO:
BUZTAN GISATUA (RABO)
- 15:00 Sari Banaketa
Entrega de premios



Txosnak. Gureak, denonak.

Auzolana eta kultura.

SINATU / FIRMA:



Txosnak babesteko
ekimena

Iniciativa en apoyo
de las txosnas

PALES- TINA ASKATU LIBRE FREE

GENOZIDIOARI
STOP!



HIRI KROSA^{XXVII}



Bilboko Konpartsek ASTE
NAGUSIA XXVII. HIRI KROSA
antolatzen dute, lasterketa herrikoia
eta federatuta asfalto gainean.

Lasterketa, Bilbon 2025eko
abuztuaren 22an ospatuko da.
Nahi duen guztiak parte har
dezake, sorterria edozein izanik
ere, eta federatua egonik ala ez.
Aurretiaz, izena eman eta dorsala
hartu beharra dago.

ABU 22
AGO
17:00

Bilboko Konpartsak organiza la
ASTE NAGUSIA XXVII HIRI
KROSA, prueba popular y federa-
da sobre asfalto.

La prueba se celebrará el 22 de
agosto de 2025 en Bilbao.
Podrán participar todas las
personas que lo deseen, sin
distinción, estén federadas o no,
y que previamente hayan forma-
lizado su inscripción y recogido
el dorsal.



PROBA, ADINA, DISTANTZIAK ETA IRTEERAK PRUEBA, EDAD, DISTANCIAS Y SALIDAS

TXUPETEA
& TXIKIAK
CHUPETES
& TXIKIS

→ 17:00
450 m
urtea / año:
2020—2025

SARI
BANAKETA
ENTREGA DE
PREMIOS



BENJAMIN AURR.
& BENJAMINAK
PRE-BENJAMÍN
& BENJAMÍN

→ 17:15
900 m
urtea / año:
2016—2019

19:30
AREATZA / EL ARENAL
INFO+:
www.bilbokokonpartsak.eus

HASIBERRIAK
& HAURRAK
ALEVÍN
& INFANTIL

→ 17:35
1350 m
urtea / año:
2012—2015

KADETEAK
& GAZTEAK
CADETE
& JUVENIL

→ 17:50
1800 m
urtea / año:
2008—2011

GURPIL-
AULKIAK
SILLAS
DE RUEDAS


→ 18:05
900 m / 1800 m
emakumeak / mujeres: 900 m
gizonak / hombres: 1800 m

ABSOLUTUA
ABSOLUTA

→ 18:25
6000 m
urtea / año:
2007eta aurrekoak /
anteriores a 2007 (inc.)



RECORRIDOS IBILBIDEAK



HAURREN PROGRAMA- ZIOA PROGRAMA- CIÓN INFAN- TIL



ABU 16 — 24 AGO

Haurrak jaiaren parte funtsezkoa dira eta ezagutzen eta maite dugun Aste Nagusiaren etorkizuna dira. Horregatik oso garrantzitsua da txikitatik jaietan aktiboki parte hartzea, horiek gozatuz eta beraienak eginez.

Igel-toka txapelketa, suzko zezena, puzgarriak, antzerkia eta pila bat ekintza gehiago izango ditugu umeei beraien irudimena eta energia aska dezaten, gozatu eta ikasten duten aldi berean.

Las niñas y los niños son parte fundamental y también el futuro de la Aste Nagusia que amamos y conocemos. Por eso es muy importante que desde pequeños participen activamente en las fiestas, que las disfruten y las hagan suyas.

Campeonato de rana, toro de fuego, hinchables, teatro y multitud de actividades más para que den rienda suelta a su energía e imaginación mientras disfrutan y aprenden.



**KARPATXO
ETA
MEKANITXIN**

ZAPATUA 16 SÁBADO

20:30 Arriaga plaza

Zezensuzkoa / Toro de fuego

PIROTEKNIA

DOMEKA 17 DOMINGO

11:00	Arriaga plaza	Gargantua	JOLASAK / JUEGOS
12:00	Txinparta	Eskulan tailerra: Zure txinpartakide animalia egin! <i>Manualidades: ¡Haz tu animal txinpartakide!</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Zaratas	Photocall + Txiki Txoko	JOLASAK / JUEGOS
	Kaialde	Puzgarriak / Hinchables	JOLASAK / JUEGOS
	Arriagako atzekalde	Apar jaia / Fiesta de la espuma	JOLASAK / JUEGOS
	Uribarri	Ígel-toka txapelketa / Competición de rana	JOLASAK / JUEGOS
	Pinpilinpaua	Haurrentzako jolasak / Juegos infantiles	JOLASAK / JUEGOS
12:30	Teilape gunea	Txikigunea: Auskalhop! Clown saioa	TAILERRAK / TALLERES
13:00	San Anton	!KONPARTSAKIDETU Goitibeherak / Goitibeheras	TAILERRAK / TALLERES
	Euskalgune	Euskal Txiki Txokoa	TAILERRAK / TALLERES
13:30	Kaskagorri	Gu gara gu, artistak!	JOLASAK / JUEGOS
16:00	Kaskagorri	Magia ikuskizuna / Espectáculo de magia	ANTZERKIA / TEATRO
17:00	Zaratas	TENDERETE txotxongiloak / Marionetas	ANTZERKIA / TEATRO
17:30	Kaskagorri	Serigrafia tailerra / Taller de serigrafía	TAILERRAK / TALLERES
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIA



ASTELEHENA 18 LUNES

11:00	Arriagako atzekalde	Puzgarriak / Hinchables	JOLASAK / JUEGOS
	Ripa	Puzgarriak / Hinchables	JOLASAK / JUEGOS
	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTIXIKI: ENTSALADA Izen ematea / Inscripción	GASTRONOMIA
	Arriaga plaza	Skate tailerra / Taller de skate	TAILERRAK / TALLERES
11:30	Kranba!	Jolas librerako txokoak / Txokos para juego libre	JOLASAK / JUEGOS
	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTIXIKI: ENTSALADA 1. pasea / 1er pase	GASTRONOMIA
12:00	Zaratas	Photocall + Txiki Txoko	JOLASAK / JUEGOS
	Kaialde	Talo tailerra / Taller de talo	TAILERRAK / TALLERES
	Kranba!	Rokodromoa / Rocódromo	KIROLAK / DEPORTES
	Hontzak	Denhontzako jolasak: kirola eta desgaitasun sentsibilizazio tailerra Taller de sensibilización: deporte y discapacidad	TAILERRAK / TALLERES
	Kulturgune	KALAKA Zurezko jokoak / Juegos de madera	JOLASAK / JUEGOS
12:15	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTIXIKI: ENTSALADA 2. pasea / 2º pase	GASTRONOMIA
12:30	Teilape gunea	Txikigunea: Harri jasotze tailerra Txikigune: Taller de levantamiento de piedra	TAILERRAK / TALLERES
	Pa... ya!	Eskumuturreko tailerra / Taller de pulseras	TAILERRAK / TALLERES
	Askapeña	EL TENDERETE antzezlan / Representación	ANTZERKIA / TEATRO
13:00	Uribarri	Maskara tailerra / Taller de máscaras	TAILERRAK / TALLERES
	Kranba!	Musika tailerra / Taller de música	TAILERRAK / TALLERES
	Euskalgune	Bat, bi, hiru...! festa!	DANTZAK / BAILES
17:00	Zaratas	MOTX PAILAZOA	ANTZERKIA / TEATRO
	Aixeberri	Aixetxiki: Zaldiko-maldiko ekologikoa eta haur jolasak Aixetxiki: Tiavivo ecológico y juegos infantiles	JOLASAK / JUEGOS
17:00	Ripa	Puzgarriak / Hinchables	JOLASAK / JUEGOS
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIA

MARTITZENA 19 MARTES

12:00	Zaratas	Photocall + Txapa tailerra / Taller de chapas	TAILERRAK / TALLERES
	Kulturgune	Bitsa eta ur jolasak / Espuma y juegos de agua	JOLASAK / JUEGOS
	Kaialde	Egurrezko jolasak / Juegos de madera	JOLASAK / JUEGOS
	Kaixo	Umeentzako tailerrak / Talleres infantiles	TAILERRAK / TALLERES
	Algara	Ogi tailerra / Taller de pan	TAILERRAK / TALLERES
	Kranba!	Rokodromoa / Rocódromo	KIROLAK / DEPORTES
	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU Kalejira emanaldia / Actuación de kalejira	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Hontzak	Zeramika tailerra / Taller de cerámica	TAILERRAK / TALLERES
12:30	Pa... ya!	Slime tailerra / Taller de slime	TAILERRAK / TALLERES
13:00	Euskaigune	Euskal Txiki Txokoa	TAILERRAK / TALLERES
17:30	Kaialde	Disko dantza / Discofiesta	DANTZAK / BAILES
18:30	Pa... ya!	Txokolatada	GASTRONOMIA
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIKA

EGUAZTENA 20 MIÉRCOLES

11:00	Arriagako atzekaldea	Puzgarriak / Hinchables	jolasak / juegos
	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTXIKI: FRUTA BROTXETAK Izen ematea / Inscripción	GASTRONOMIA
11:30	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTXIKI: FRUTA BROTXETAK 1. pasea / 1er pase	GASTRONOMIA
12:00	Zaratas	Photocall + Txiki Txoko	JOLASAK / JUEGOS
	Kaialde	Ipuin kontalaria / Cuentacuentos	ANTZERKIA / TEATRO
	Kranba!	Rokodromoa / Rocódromo	KIROLAK / DEPORTES
12:15	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTXIKI: FRUTA BROTXETAK 2. pasea / 2º pase	GASTRONOMIA
12:30	Teilape gunea	Txikigunea: Azukre kotoi tailerra Txikigunea: Taller de algodón de azúcar	TAILERRAK / TALLERES

12:30	Piztiak	Txosna margotzeko tailerra, HISTERIKA ilustratzailearekin <i>Taller de pintar la txosna con la ilustradora HISTERIKA</i>	TAILERRAK TALLERES
	Txinparta	Kolore arte tailerra: gorputz anitzen erruleta <i>Kolore taller de arte: ruleta de los cuerpos diversos</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Moskotarrak	Haurren Molto motorren XII. lasterketa <i>XII carrera infantil de motos Molto</i>	LEHIAKETA / CONCURSO
13:00	Uribarri	TUTTI FRUTTI	TAILERRAK / TALLERES
	Euskalgune	Euskal Txiki Txokoa	TAILERRAK / TALLERES
17:00	Arriaga plaza	! KONPARTSAKIDETU Eraiki zure txosna / Construye tu txosna	TAILERRAK / TALLERES
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIA

EGUENA 21 JUEVES

10:00	Aburiko kantxak	Xake txapelketa: eskolarteko txapelketa <i>Campeonato de ajedrez: torneo interescolar</i>	LEHIAKETA / CONCURSO
12:00	Zaratas	Photocall + Kalkamonia tailerra	TAILERRAK / TALLERES
	Kulturgune	Bitsa eta ur jolasak / Espuma y juegos de agua	JOLASAK / JUEGOS
	Kaialde	Txapa digital tailerra / Taller de chapa digital	TAILERRAK / TALLERES
	Kaixo	Disko txiki	DANTZAK / BAILES
	Algara	TXINTXETA, KLIPA ETA TXORROSKILO PAILAZOAK	ANTZERKIA / TEATRO
	Kranba!	Rokodromoa / Rocódromo	KIROLAK / DEPORTES
	Hontzak	Fondant tailerra / Taller de fondant	TAILERRAK / TALLERES
12:30	Teilape gunea	Txikigunea: buruarinen tailerra	TAILERRAK / TALLERES
	Pa... ya!	Aurpegi margoketa / Pintacaras	TAILERRAK / TALLERES
	Kaskagorri	Txotxongilo tailerra / Taller de marionetas	TAILERRAK / TALLERES
	Triangune	Antimilitarismo origamia / Papiroflexia antimilitarista	TAILERRAK / TALLERES
13:00	Euskalgune	Euskal Txiki Txokoa	TAILERRAK / TALLERES
17:00	Arriagako atzekaldea	TXULALAI	DANTZAK / BAILES
	Kulturgune	! KONPARTSAKIDETU Kalejira tailerra / Taller de pasacalles	TAILERRAK / TALLERES
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIA



BARIKUA 22 VIERNES

11:00	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTXXIKI: GILDAK Izen ematea / <i>Inscripción</i>	GASTRONOMIA
11:30	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTXXIKI: GILDAK 1.pasea / <i>1er pase</i>	GASTRONOMIA
12:00	Zaratas	Photocall + Txiki Txoko	JOLASAK / JUEGOS
	Kranba!	Rokodromoa / <i>Rocódromo</i>	KIROLAK / DEPORTES
	Kranba!	Birziklapen tailerra: loreontzi bat apaindu eta landare bat eraman / <i>Taller de reciclaje: decora una maceta y llévate una planta</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Kranba!	! KONPARTSAKIDETU Txotxongilo tailerra / <i>Taller de marionetas</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Ripa	Puzgarriak / <i>Hinchables</i>	JOLASAK / JUEGOS
12:15	Gastrogunea	! KONPARTSAKIDETU GASTROTXXIKI: GILDAK 2. pasea / <i>2º pase</i>	GASTRONOMIA
12:30	Pa... ya!	I23...FESTA! Umeentzako diskofesta / <i>Discofiesta infantil</i>	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Triangune	Tailer ekologista / <i>Taller ecologista</i>	TAILERRAK / TALLERES
17:00	Areatza	XXVII. Hiri Krosa: Txupeteen eta txikien irteera XXVII Hiri Krosa: <i>Salida txupetes y txikis</i>	KIROLAK / DEPORTES
18:30	Uribarri	Umeentzako talo tailerra / <i>Taller de talos infantil</i>	TAILERRAK / TALLERES
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / <i>Toro de fuego</i>	PIROTEKNIA

ZAPATUA 23 SÁBADO

11:00	Arriagako atzekaldea	Puzgarriak / Hinchables	JOLASAK / JUEGOS
12:00	Zaratas	Photocall + Txiki Txoko	JOLASAK / JUEGOS
	Kaixo	Aurpegi margoketa / Pintacaras	TAILERRAK / TALLERES
	Algara	! KONPARTSAKIDETU Serigrafia tailerra / Taller de serigrafía	TAILERRAK / TALLERES
13:00	Kulturgune	1,2,3...FESTA!!!	ANTZERKIA / TEATRO
	Euskalgune	Euskal Txiki Txokoa	TAILERRAK / TALLERES
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIA

DOMEKA 24 DOMINGO

11:00	Arriaga plaza	Gargantua	JOLASAK / JUEGOS
12:00	Zaratas	Photocall + Txiki Txoko	JOLASAK / JUEGOS
	Arriagako atzekaldea	Apar jaia / Fiesta de la espuma	JOLASAK / JUEGOS
	Kranba!	Zeinu hizkuntza ikastaroa Taller de lengua de signos	TAILERRAK / TALLERES
20:30	Arriaga plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIA



PRO-
GRAMA
EGU-
NEZ
EGUN
PRO-
GRAMA
DÍA A
DÍA



Gure auzuneetan sortuak,
konpartsek Bilboko elkarbizitza
asoziatibo aberatsa islatzen dute;
partaidetza, ikusle hutsak izatea
baino. Konpartsek eredu parte-
hartailea bultzatzen dute eta,
era berean, jende askok ekarpena
egiteko duen gogoia bideratzen
dute, festan aktiboki esku-hartzeko
bidea emanez.

Jatorri eta sentsibiltate sozial
zein politiko askotako jendeak
eta taldeak elkartzen gara
konpartsetan. Aniztasunetik eta
elkarlanetik Bilbo eraikitzen dugula
ikusteak batu eta ilusioz betetzen
egiten gaitu.

Nacidas en nuestros barrios,
las konpartsas reflejan la rica
convivencia asociativa de Bilbao.
Tomar parte más allá de ser un
mero espectador. Las konpartsas
promueven un modelo participa-
tivo, encaminando las ganas que
tiene mucha gente de hacer sus
propias aportaciones y participar
activamente en la fiesta.

En las konpartsas nos juntamos
personas y grupos con proce-
dencia y sensibilidades políticas
o sociales diferentes. Ver que
construimos Bilbao desde la
diversidad y el trabajo en equipo
nos une e ilusiona.

ZAPATUA 16 SÁBADO

16:30	San Anton	Txupinaren kalejira / Pasacalles del txupin	KALEJIRA
19:00	Arriaga Plaza	Harrera Marijaiari, pregoia eta jaien hasierako txupina Recepción a Marijaia, pregón y txupin de comienzo de fiestas	EKITALDIA / ACTO
19:50	Arriaga Plaza	Agurra Marijaiari / Agurra a Marijaia	EKITALDIA / ACTO
20:00	Txinparta	Arratsaldeo ta jaleoi: LAIKASISTER DJS	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
	Arriagako Atzekalde	Marijaiari harrera eta txosnen irekiera Recepción a Marijaia y apertura de txosnas	EKITALDIA / ACTO
	Txinparta	Txosnen irekiera / Apertura de txosnas	KALEJIRA
20:30	Arriaga Plaza	Zezensuzkoa / Toro de fuego	PIROTEKNIA
22:30	Etzebarria Parkea	Bilbao Hiria Su Artifizialen Nazioarteko XXXIII. Lehiaketa Nagusia XXXIII Concurso Internacional de Fuegos Villa de Bilbao PIROTECNIA CAFFERO (Holanda)	PIROTEKNIA
23:00	Kaixo	LEI DJ eta OREINAK DJ	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Askapeña	ZILUX, BEÑAT ETA IMANOL	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
	Kranba!	KBILLY DJ	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Teilape Gunea	DJ TXASKY	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
	Algara	END DJ	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
00:00	Txinparta	QUÉ TE PONGO DJ	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
00:30	Pinpilinpaua	NACHA LA MACHA	KONTZERTUAK / CONCIERTOS

DOMEKA 17 DOMINGO

10:00	Arriaga Plaza	Txistularien diana eta txupina <i>Diana de txistularis y txupin</i>	KALEJIRA
	Aixeberri	Elkartasun txanda: Ibilaldia 2026 Bilbon <i>Turno solidario: Ibilaldia 2026 Bilbon</i>	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
	Tintigorri	XAKE TXAPELKETA: Aldi berekoak eta itsu-itsukoak <i>CAMPEONATO DE AJEDREZ: Simultaneas y a ciegas</i>	LEHIAKETA / CONCURSO

10:30	Teilape Gunea	Blood Bowl mahai jokoaren erakustaldia <i>Exhibición del juego de mesa Blood Bowl</i>	JOLASAK / JUEGOS
10:30	Aixeberri	XII. Open Magic: Izena ematea Pokemon karta joko lehiaketa eta mahai jokoak <i>XII Open Magic: Inscripción, partidas de cartas Pokemon y juegos de mesa</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Gastrogunea	Lehiaketa: Munduko platerak: Arroz Izen ematea <i>Concurso: Platos del mundo: Arroz. Inscripción</i>	GASTRONOMIA
11:00	Arriaga Plaza	Gargantua	JOLASAK / JUEGOS
	Zabalbide Kalea	Goitibehera lehiaketa / <i>Concurso de goitibeheras</i>	LEHIAKETA / CONCURSO
	Askapeña	NOVISI ELKARTEA Artisau eskulanak / <i>Mesa de artesanía</i>	AZOKA / MERCADO
	Gastrogunea	GURE LURREKO MERKATUA	AZOKA / MERCADO
	Gastrogunea	Ardo dastaketa- Lehiaketa "Marijaiaen Sudurra" <i>Cata-Concurso "Nariz de Marijaia"</i>	GASTRONOMIA
12:00	Txinparta	Eskulanak: Zure Txinpartakide animalia egin! <i>Manualidades: ¡Haz tu animal Txinpartakide!</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Zaratas	Photocall + <i>Txiki txoko</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Kaialde	Puzgarriak / <i>Hinchables</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Arriagako Atzekalde	Apar jaia / <i>Fiesta de la espuma</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Uribarri	Igel-toka txapelketa / <i>Competición de rana</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Pinpilinpaua	Haurrentzako jolasak / <i>Juegos infantiles</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Euskalgune	Txalaparta tailerra / <i>Taller de txalaparta</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Gastrogunea	Eusko Labeleko barazki eta hanburgesa parrillada <i>Parrillada de verduras y hamburguesas de Eusko Label</i>	GASTRONOMIA
12:30	Teilape Gunea	Txikigunea: Auskalhop! Clown saioa	TAILERRAK / TALLERES
	Triangune	Forró: Brasilgo dantza / <i>Baile brasileño</i>	DANTZAK / BAILES
13:00	San Anton	!KONPARTSAKIDETU Goitibeherak	TAILERRAK / TALLERES
	Euskalgune	Euskal Txiki Txokoa	TAILERRAK / TALLERES
	Kranba!	POMADA BANDA	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Hontzak	ACID SOUL	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
13:15	Gastrogunea	Lehiaketa: Kazolak entregatzeko epearen hasiera <i>Concurso: Inicio del plazo de entrega de cazuelas</i>	GASTRONOMIA
13:30	Kaskagorri	Gu gara gu, artistak!	JOLASAK / JUEGOS

13:30	Tintigorri	ARTABURUAK: 10. urteurrena / 10º Aniversario	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
14:00	Gastrogunea	Lehiaketa: Kazolak entregatzeko epearen hasiera <i>Concurso: Fin del plazo de entrega de cazuelas</i>	GASTRONOMIA
14:30	Kaskagorri	Bihurri euskaldunen bazkaria	BAZKARIA / COMIDA
15:00	Areatza	Arroza Lehiaketako sari banaketa <i>Reparto de premios del concurso de Arroz</i>	GASTRONOMIA
16:00	Kaskagorri	Magia ikuskizuna	ANTZERKIA / TEATRO
16:30	Askapeña	Antzinako istorioen tailerra, danborren erritmora <i>Taller de historias ancestrales a ritmo de tambores</i>	TAILERRAK / TALLERES
17:00	Zaratas	TENDERETE txotxongiloak / Marionetas	ANTZERKIA / TEATRO
	Kranba!	Kolektiboen Herri Azoka <i>Mercado de colectivos sociales</i>	AZOKA / MERCADO
17:30	Piztiak + Kranba!	LITTLE HARLEM Swing tailerra / <i>Taller de swing</i>	DANTZAK / BAILES
	Kaskagorri	Serigrafia tailerra	TAILERRAK / TALLERES
18:00	Kaialde	DISPLICENTES	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Askapeña	AFRICAN VIBES DANCE	DANTZAK / BAILES
	Teilape Gunea	Swing tailerra / <i>Taller de swing</i>	DANTZAK / BAILES
	Areatzako Kioskoa	Txalaparta	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Moskotarrak	Moskotardeo	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
18:30	Zaratas	SALSEO SALSORAYA	DANTZAK / BAILES
	Aixeberri	AixeBeer	GASTRONOMIA
	Piztiak + Kranba!	CRAZZY JAZZERS	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
19:00	Triangune	Dantza plaza	DANTZAK / BAILES
20:00	Pa... Ya!	Saltsa ikastaroa / <i>Master class de salsa</i>	DANTZAK / BAILES
	Askapeña	DJ ZILIUZ, MIRAKLE ETA SAUGGA	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Hor Dago Abante!	Bingoz Bingo: YOGURINA BOROVA eta AKRATA KRISTI	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
20:30	Aixeberri	LAS SEXPEARES	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Kulturgune	GAUALDEKO HASPERENA	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Arriaga Plaza	Zezensuzkoa / <i>Toro de fuego</i>	PIROTEKNIA
22:30	Etxebarría Parkea	Bilbao Hiria Su Artifizialen Nazioarteko XXXIII. Lehiaketa Nagusia <i>XXXIII Concurso Internacional de Fuegos Villa de Bilbao</i> <i>PIROTECNIA PIROCENTER (Brasil)</i>	PIROTEKNIA

23:00	Piztiak	ÁCIDO FOLKLÓRICO	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Zaratas	BORJA NIHIL DJ	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
23:00	Kulturgune	BERBA LABANAKAZ	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Kranba!	OBI JUAN, MONICA ELEKTRA eta ZABOR DJ	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Askapeña	ZILIUX ETA BEÑAT	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
	Euskalgune	SKABIDEAN	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
	Teilape Gunea	Gazte gaua / <i>Noche joven</i>	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
	Algara	KILIKI+ MIRUA	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
23:30	Kaskagorri	NAXKER	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
23:45	Tintigorri	VERTIGO (U2 bertsioak / <i>versiones U2</i>)	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
00:00	Txinparta	EROMENA DJ	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
00:30	Pinpilnpauxa	LAS KETCHUP	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
01:00	Hontzak	DJ OPILAK	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
01:15	Kaskagorri	PERLATA	KONTZERTUAK / CONCIERTOS
03:00	Kaskagorri	LAS TXIRONGAS DJ	KONTZERTUAK / CONCIERTOS

ASTELEHENA 18 LUNES

10:00	Arriaga Plaza	Txistularien diana eta txupina <i>Diana de txistularis y txupin</i>	KALEJIRA
10:30	Gastrogunea	Lehiaketa: Pisto (% 100 begetala) Izen ematea <i>Concurso: Pisto (100 % vegetal) Inscripción</i>	GASTRONOMIA
11:00	Arriagako Atzekaldea	Puzgarriak / <i>Hinchables</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Ripa	Puzgarriak / <i>Hinchables</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Gastrogunea	!KONPARTSAKIDETU GASTROTXXIKI Izen ematea / <i>Inscripción</i>	GASTRONOMIA
	Arriaga Plaza	Skate tailerra / <i>Taller de skate</i>	TAILERRAK / TALLERES
11:30	Kranba!	Jolas librerako txokoak / <i>Txokos para juego libre</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Gastrogunea	!KONPARTSAKIDETU GASTROTXXIKI 1. pasea / <i>1er pase</i>	GASTRONOMIA
12:00	Zaratas	Photocall + Txiki Txoko	JOLASAK / JUEGOS
	Kaialde	Talo tailerra / <i>Taller de talo</i>	TAILERRAK / TALLERES

12:00	Kranba!	Rokodromoa / <i>Rocódromo</i>	KIROLAK / DEPORTES
	Hontzak	DenHONTZAKo jolasak: Kirola eta desgaitasun sentsibilizazio tailerra / <i>Taller de sensibilización: Deporte y discapacidad</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Algara	Euskara Ikasleen Eguna: Paella lehiaketa eta jolasak	JOLASAK / JUEGOS
	Algara	Bilbo Hiria iratiaren zuzeneko emanaldia	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
	Kulturgunee	KALAKA Zurezko jokoak / <i>Juegos de madera</i>	JOLASAK / JUEGOS
	Gastrogunea	!KONPARTSAKIDETU GASTROTXXIKI 2. pasea / 2º pase	GASTRONOMIA
12:15	Kaskagorri	"Jone, batzuetan" filmaren aurkezpena eta marianitad NIZE taldearekin	BESTELAKO IKUSK. / OTROS ESPECT.
12:30	Teilape Gunea	Txikigunea: Harri jasotzea / <i>Levantamiento de piedra</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Pa... Ya!	Eskumuturreko tailerra / <i>Taller de pulseras</i>	TAILERRAK / TALLERES
	Askapeña	EL TENDERETE antzezlan / <i>Representación</i>	ANTZERKIA / TEATRO
	Zabalguneko Merkatua	Aste Nagusiko erraldoiaren entrega <i>Entrega del gigante de Aste Nagusia</i>	EKITALDIA / ACTO
13:00	Piztiak	Patata tortilla tailerra, % 100 begetala <i>Taller de tortilla de patata 100 % vegetal</i>	TAILERRAK / TALLERES
